

# begira

20 URTE

## ULMAREN BIHOTZA ZAINTZEN

2022ko uztaila  
# 55

ALDIZKARIAREN

**20**  
URTE

BETE DITUGU



4



### Albisteak eta gaurkotasuna

HARRI hiri bankua ADI 2022 Sarietarako hautatu dute

06

ULMA Forja, S, Coop.ek Compliance Penala Kudeatzeko Sistemaren ziurtagiria lortu

08



New Yorken egitura kurbatua eraikitzeako enkofratu-soluzioak

12

ULMA Conveyor Components, Kanadako CIM azokan

13

16



### ULMA Taldeko beste talentuak

Egoitz Olalde. Baketaren erritmoan

16

18



### Erreportajeak

Ukrainako adingabeen harrera. Erradiazioa eta, orain, gerra

18

ULMAren bihotza zaintzen

20

23



### Agenda eta iradokizunak

Erretiroak maiatzak 1 - abuztuak 31

23

Begira aldizkariaren 20 urte bete ditugu

24

begira   
20 URTE

### 20 URTE EZ DA EZER... EDO BAI...

Ba, denean bezala, nondik begiratzen den. Kasu honetan, badirudi baietz, badela. Gure Begira aldizkariaren 20 urteek askorako eman dute. 2002ko uztailean 0. zenbakia atera zenetik gaur arte, 55. zenbakiarekin, gai ugari landu eta gorabehera asko izan ditugu, baina hemen jarraitzen dugu, hasierako ilusio berberarekin.

Begira gure ULMA Taldearen historiaren parte da dagoeneko, eta, beti bezala, eskerrak eman nahi dizkiegu honaino iristea ahalbidetu duzuen guztiei. Beste 20ren bila goaz

 **ULMA**

ARGITARATZAILEA: Grupo ULMA S. Coop. B° Garagaltza 51 20560 OÑATI, T 943 25 03 00  
ZUZENDARITZA: Carlos Sarabia | csarabia@ulma.com  
EDITORE/ERREDAKZIO KONTSEILUA: Oihane Etxebarria, Aitor Castro, Elena Goirizelaia, Maria Sendin, Sara Soria, Janire Laconcha, Nerea Burgoa, Itsaso Letamendi eta Carlos Sarabia  
DISEINUA ETA MAKETAZIOA: Igone Basterra | ibasterra@ulma.com



Paper ekologikoa

2

3

## FRUIT LOGISTICA 2022AN FRUTA ETA BARAZKIETARAKO ONTZIRATZE JASANGARRI ETA MOLDAGARRITASUN HANDIKO SOLUZIO BERRIAK



ULMA PACKAGING

Ingurumena errespetatzen duten ontzi gero eta jasangarriagoen eskaerari erantzunez, eta #ULMAweCare proiektuaren barruan, ULMA Packagingek ontziratzeko makinak diseinu eta aplikazio jasangarriak garatzen eta berritzen du.

Fruit Logistica 2022an aurkeztutako soluzioen artean, **barazki eta fruta sektorean jasangarritasuna** hobetzera bideratutako teknologia

nabarmetzen dira, hala nola VENTURITM, TIGHT-BAGTM eta BETTER-SEALTM. Halaber, bizi zikloaren amaieran ontziak **birziklatzen laguntzen** duten eta **moldagarritasun handia** duten ekipoak erakutsi dira, ohiko materialekin lan egiteaz gain, material alternatibo berriekin lan egiteko aukera ematen baitute: paper zuntzean oinarritutako ontziak, material bakarreko ontziak eta material berriztagarri egindako ontziak.


Horiez gain, **lerro amaieran automatizatzeko eta integratzeko soluzioak** aurkeztu dira, erretiluak zein poltsak kaxetan automatikoki sartzeko, eta horiek, beste ekipo osagarri batzuekin osatuta, efizientzia eta produktibitatea ematen diote lerroari.

Ontziratzeko makinak HMI (UPC 4.0) bat dute, eta horrek operazio, konektagarritasun eta **integrazio** lanak errazten ditu, **4.0 Industriako ingurune** batean.

## CIE LEGAZPIK ELEKTRIFIKAZIOAREN ALDE EGIN DU ULMAREKIN

ULMA Manutentzio Zerbitzuak-ek CIE Legazpiko organ flota berri du, **litio-oi teknologia duten orga kontrapisatu elektrikoak 13 unitate berriekin**. ULMak planteatutako proposamenak CIE Legazpiren jardueren **ingurumen inpaktua gutxitzen** du, bezero historiko horren **produktibitateari eragin gabe**.

ULMAk ezarritako soluzio jasangarriak diesel bidezko barne errektuntzako orga zaharrak ordezkatzen ditu, **CIEko langileen eta lan prozesuen segurtasuna maximizatzen du**, eta, gainera, igorpenak nabarmen murrizten ditu, energia kontsumoa nabarmen optimizatuz, horrek ekoizpen prozesuetan eta ingurumenean duen eraginarekin.



ULMA MANUTENTZIO ZERBITZUAK

## OBRAN PRESENTE EGOTEA, FUNTSEZKOA DA MEXIKON ITSAS PLATAFORMAK ERAIKITZEKO LANEN ARRAKASTARAKO



ULMA CONSTRUCTION

**EK-BALAM hidrokarburoak ekoizteko eremua Mexikoko golkoko kostaldean dago, eta ekoizpen ahalmena handituko du BALAM-TA2 itsas plataforma berri baten bidez. Egitura bi zatitan eraikitzen ari dira ESEASA Offshore patioan.**

Plataformaren beheko aldeak, itsas hondoa jarriko denak, 42 metroko altuera eta 13 metroko luzera ditu. Egituraren barnealdean eta alde bakoitzean, 14 metroko altuera duten BRIO aldamioko 10 dorre muntatu dira, luzera ezberdineko pasabideekin (6, 9 eta 11 metrokoak) elkarri lotuta.

Horrelako eskakizunak dituen proiektu batean, **funtsezkoak izan dira ekipamendu kopuru handiak hornitzea eta entregatzeko epeak betetzea proiektua behar bezala garatzeko.**

**Obra honetan ULMako langileen presentzia etengabea izan da, ez soilik aldamioren egiturak teknikoki gainbegiratzeko, baizik eta BRIO Norabide Anitzeko Aldamioaren sistemaz, leku garaietako lanaz, industriako segurtasunez eta tarteko arduradunen lidergoaz saio teoriko eta praktikoa emateko ere bai.**



## ULMA CONVEYOR COMPONENTS ETA SIMING ELKARREKIN BELGRADEN



ULMA CONVEYOR COMPONENTS

ULMA Conveyor Componentsek **Balkanetako eskualderako duen Siming banatzaileak antolatutako biltzarrean** parte hartu du, Belgraden, joan den maiatzaren 31tik ekainaren 2ra.

Biltzarrak eskualdeko meategi nagusiak eta horien hornitzaileak elkartu ditu. Biltzarrean, lehengaien prezioen egungo ezezagortasun egoera konplikatuari eta sektorean eragina duten hornidura kateko arazoei buruz eztabaidatu zen.

ULMAk eta bere partner Simingek beren **katalogoaren azken berrikuntzak eta PREMIUM Zerbitzuaren proposamenak erakutsi** dituzte, **hornikuntza ziurtatzeari, berme zabaldui, segurtasun stockari eta garraiagailuetako arrabolen bizitzan egindako hobekuntzei** dagokienez.

## EKIPO UGARI PORTUGALGO ABIADURA HANDIKO LINEAREN LEHEN ZATIA ERAIKITZEKO



ULMA CONSTRUCTION

TRENBIDE PLAN NAZIONALAREN BARRUAN, EVORA-ELVAS 80 KM-KO LINEA IZANGO DA PORTUGALGO ABIADURA HANDIKO LINEAREN LEHEN ZATIA, MERKANTZIAK ETA BIDAIARIAK GARRAIATZEKO ERABILIKO DENA.

Trenbide zati hori proiektu zabalago baten zatia da, Hegoaldeko Korridore Internazionalaren zatia, alegia. Korridore horrek Elvas eta Sinesko portua lotuko ditu, herrialdeak Europarekin dituen konexioak hobetzeko.

'Infraestruturas de Portugal' izeneko enpresa publikoak gidatzen ditu obrak, eta obra horietan bost trenbide zatietako lautan parte hartzen ari gara hainbat eraikuntza enpresaren eskutik, esaterako, MotaEngil, MADONU, Constructora São José, Teixeira Duarte, Sacyr, COMSA, Fergrupo eta FCM enpresaren eskutik

- Freixo - Alandroal zatia: 20,5 km
- Evora iparraldea - Freixo zatia: 20,5 km
- Evora - Evora iparraldea zatia: 10 km
- Alandroal - Linha do Leste zatia: 38,5 km

**Freixo - Alandroal zatiak 10 biaduktu eta 16 gaineko pasabide ditu. Proiektu honen tamaina dela-eta beharrezkoa izan da tonaka ekipo hornitzea, ingeniartzako soluzioak ematea eta obrako parte hartzaile guztien artean etengabeko komunikazioa egotea, gainera, errentagarritasuna segurtasunaren eskutik joan da.**




## HARRI HIRI BANKUA ADI 2022 SARIETARAKO HAUTATU DUTE

Harri, ULMA Architectural Solutionsen bilduma berriko hiri bankua, ADI (Diseinu Industrialaren Elkartea) 2022ko sarien "DELTA" atalerako hautatu dute.

Hiri banku hori aurkeztu diren 362 proiektuetatik aukeratu diren 183 proiektuetako bat da. "DELTA" atala **diseinu industrial nazionalaren erreferentzia eta aintzatespen** indize bat da, industria diseinatzaileen eta enpresa ekoizleen lana aitortzen duena.

Harri bi metro luzeko bankua da, dotorea, moldagarria eta ateporala,



ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

eta estridentziarik gabe integratzen da edozein lekutan. Bere sortzailea, Miguel Angel Ciganda diseinatzailea, Gipuzkoako Arantzazuko Santutegiko dorre arantzadunetan inspiratu zen sortzeko, eta hori da bilduman gustukoaren duen diseinua.

## ULMA HANDLING SYSTEMS EUSKADIKO VII. JARDUNALDI LOGISTIKOAN IZAN DA



ULMA HANDLING SYSTEMS

ULMA Handling Systemsek, Eñaut Sarriegi zuzendari komertzialaren eskutik, Euskadiko VII. Jardunaldi Logistikoan parte hartu zuen, maiatzaren 11n, Bilboko Euskalduna Jauregian. Jardunaldia **Mugikortasun eta Logistika Klusterrak** antolatu zuen, Easyfairs Taldearekin lankidetzan, eta indarrak batzen eta digitalizazio, automatizazio eta irtenbide logistikoaren inguruko ezagutza transferitzen lagundu zuen.

Eñaut Sarriegik, bere ponentzian, gradualtasunean oinarritutako automatizazio logistikoko prozesu baten xehetasunak aurkeztu zituen. Premisa horren pean, enpresak **barne logistikako soluzio automatizatuak ematen ditu, hasiera mailakoak, maila ertainekoak edo altukoak, bezeroaren beharren arabera, eta edozein dimentsiotako proiektuetarako.** "Automatizazioa negozioen kudeaketa logistikoan



laguntzen duen prozesua da, ekoizpenetik eta kanpoko hornitzaileetatik datozen salgaiak jasotzen direnetik bidalketara arte", adierazi zuen Eñautek.

ULMAK aurkeztutako kasu arrakastatsuen artean Eroskizegoen, eta Eroskik ere parte hartu zuen ponentzian, banaketa konpainiaren etengabeko hobekuntza eta proiektuen arduradun Arantza Laskurainen bidez.

Jardunaldian, halaber, enpresa erreferenteek parte hartu zuten, horien artean AR Racking, Ibili, Dachser eta Mondragon Unibertsitatea, besteak beste.

## ULMA AGRICOLA GREENTECH AMERICAS 2022AN EGON DA

ULMA Agricolak GreenTech Americas 2022 azokaren bigarren edizioan parte hartu du, Santiago de Queretaron, 2022ko apirilaren 27tik 29ra, baratzeko teknologiararen arloan dituen azken soluzioak eta ezagutza aplikatuak ezagutarazteko.

GreenTech Americas topalekua da Mexiko eta Amerikako gainerako eskualdeetan baratzezaintzako teknologian inplikaturik dauden profesional guztientzat. Erakusketaren ardatza baratzezaintza katearen lehen etapak eta ekoizleentzat garrantzitsuak diren ekoizpen



ULMA AGRICOLA

arazoak dira. 3 egun horietan, ULMAK **harreman komertzial egonkorra lortu, ideiak trukatu eta aukera berriak ezagutu ahal izan ditu baratzeko teknologiararen arloan.**

## ULMA FORJA, S. COOP.EK COMPLIANCE PENALA KUDEATZEKO SISTEMAREN ZIURTAGIRIA LORTU DU

ULMA Forged Solutionsek, Bureau Veritasek egindako auditoriaren ondoren, Compliance Penal Kudeatzeko Sistemaren ziurtagiria lortu du, UNE 19601:2017 arauaren arabera. **Era horretan, compliance eremuan, gero eta zorrotzagoa eta galdagarriagoa den eremuan, ziurtagiria duten industria enpresek osatutako talde txikian sartu da ULMA.**



Ziurtagiri horrek sendotu egiten du kooperatibak duela 60 urte sortu zenetik araudia eta kultura zein balioak betetzeko duen konpromisoa, eta, bereziki, **“Gauzak ondo egitearen balioa”** ideiarekiko duen konpromisoa. ULMA Forged Solutionsaren Compliancearekin, tradizio hori gauzatu egiten da, eta beharrezko kontrolak ezartzen dira

erakundeetan etikoki jarduten dela eta araudia betetzen dela ziurtatzeko; horretaz gainera, funtsezkoa da kooperatibaren iraunkortasuna ziurtatzeko eta etorkizuneko belaunaldiari ondare hobea uzteko.

Ziurtagiri hori kooperatibak aurretik dituen beste ziurtagiri batzuei

gehitu zaie: Laneko Kalitatea, Ingurumena eta Segurtasuna eta Osasuna Kudeatzeko Sistemetan dituen ziurtagiriei (ISO 9001:2015, ISO 14001:2015 eta ISO 45001:2018, hurrenez hurren) eta sektore aeroespazialaren AS 9100D arauarekin lotuta dituenen.

## ULMAKO GERO ETA KIDE GEHIAGOK AUKERATZEN DUTE AUTOA PARTEKATZEA LANERA JOATEKO

Gero eta ohikoagoa da ULMAn lanera auto partekatuan joatea. Joan den maiatzean **barne kanpaina bat egin zen, lanera autoa partekatuz joatea sustatzeko.** Kanpainaren helburua zen lanera etortzean egunero igortzen ziren CO<sub>2</sub> kgak murriztea.

**Maiatzean, ULMAko pertsonak auto partekatuan egindako 187 bidaia** zenbatu dira guztira. Hau da, guztira **6.877 km.**



Lanera kotxe partekatuan etorri nahi duzu? kanpaina abiarazi ondoren, ikusten da maiatzean zehar hobekuntza bat dagoela partekatutako autoaren erabilari buruzko datuetan, apirilarekin alderatuta. Adierazle guztietan hobetu da, baina garrantzitsua

da horietako bi nabarmenak: argitaratutako bidaia eta hasitako txatak. adierazle horiek adierazten dutenez, Ciklogreenen Ekokilometro programaren carpooling plataformaren bidez, ULMAko hainbat kide harremanetan jarri dira lanera doazen eta autoa partekatzeko interesa duten beste

persona batzuekin. Oraindik aplikazioa ezagutzen ez baduzu eta autoa partekatzeko interesatzen bazaizu: **www.ekokilometro.ulma.com.** Gainera, aplikazioa erabiltze hutsagatik, puntuak lortuko dituzu eta opari bikainekin trukatu ahal izango dituzu.

## INOXTRUCKEKO EKIPO HIGIENIZAGARRI ARRAKASTATSUAK 2022KO IFFA FRANKFURTEN

Inoxtruckek **higienizagarrien ekipa berritzaileen sorta** aurkeztu du, eta, horien artean, bere Iraulketa Dorrea eta eurobinak pilotatzeko sistema nabarmendu dira IFFA Frankfurt, Europako haragi industriarako nazioarteko azoka nagusian. Azokak 40 herrialde baino gehiagotako 900 enpresa erakusketari izan ditu, eta 129 herrialdeetako 50.000 bisitari inguru.

Fernando Odriozola Inoxtruck negozio unitateko arduradunaren arabera, *“emaitza ezin hobea izan da, egindako kontaktuen kopurua eta kalitatea 2019ko ediziokoa baino handiagoa izan baita; gainera, kontaktu berri horietako gehienak estrategikotzat jotzen ditugun herrialdeetatik datoz, hala nola Suitza, Herbehereak, Polonia, Austria edo Hego Amerikako herrialdeetatik”.*



Inoxtruckek mundu osoan garrantzia duen eta sektoreko markarik garrantzitsuenen partaidetza duen azoka horretan parte hartzeak ULMA Manutentzio Zerbitzuak-ek bezeroekiko harreman pertsonalaren alde egindako apustua indartu du. Eta, hala, **AEB, Islandia, Finlandia eta Korearako banatzaile potentzial berriak** erakarri ahal izan dira.



## WEBINAR BERRIA, HARAGIA ZATIKATZEKO ETA ONTZIRATZEKO LERRO OSOA ERAKUSTEKO

MARELek eta ULMA Packagingek webinar bateratu bat jarri dute abian, **haragia zatikatze eta ontziratzeko lerro osoa** erakusteko. MAREL elikagaiak eraldatzen eta prozesatzen liderra da munduan, eta zatikatze sistema hornitzen du eta ULMAk bere ontziratzeko soluzioak ematen ditu.

Elkarrekin, MARELek eta ULMAk **kalitate handiko elikagaien ekoizpenean laguntzeko** lan egiten dute, **elikagai seguruak eta eskuragarriak eskaintzeko**, softwarea, zerbitzuak, sistemak eta soluzioak eskainiz arraina, haragia eta oilategiko hegaztiak prozesatzeko industriei.



## BIDAFARMAK BIDAIA BERRI BATI EKIN DIO ULMAREKIN, MOVIK-I ESKER

ULMA HANDLING SYSTEMS



Gama zabaleko sendagaiak handizka banatzeko BIDAFARMA kooperatibak ULMA Handling Systemsen alde egin du, biltegiatze automatikoko eta eskaerak prestatzeko sistema bat garatzeko. Instalazioa ULMAk garatutako Movik automatizazioarako sistemaren bidez izango da posible.

Movik soluzioak ULMAren soluzioak **estandarizatzea eta sinplifikatzea** ahalbidetzen du, proiektu handien bikaintasuna ahalik eta adierazpide txikienarekin lortzeko. Negozio lerro berri horren gakoak hauek izango dira: **produktuen eta zerbitzuen azkartasuna, eskalagarritasuna eta automatizazioarako erabilitako baliabideen efizientzia.**

## HWS ENKOFRATUAK SEGURTASUNA BERMATU DU MIRABELLA KONPLEXUAREN ERAIKUNTZAN, KANADAN

LAKE SHORE BOULEVARD WEST-EKO 1926AN DAGO, TORONTOKO LEKU PRIBILEGIATU BATEAN. MIRABELLA LUXUZKO KONPLEXUAK BI DORRE DITU ONTARIO LAKUAREN ERTZEAN, ETA HIRIKO SKYLINE ETA HIGH PARKEKO IPARRALDERA BISTA ZORAGARRIAK.

ULMA bezeroarekin elkarlanean aritu da Gardiner autobidearen gainean bi eraikinak eraikitze lanetan ari zirela babes perimetrala emateko.

Eraikinak 38 solairu edukiko ditu, 720 suite, guztira. **Proiektu honetan, ULMA babeserako duen HWS sistema hidraulikoarekin parte hartzen ari da, eraikitze lanak egiten ari diren bitartean langileak eta oinezkoak babesteko segurtasun elementu bat baita.**

Sistemak hiru solairu maila babesten ditu, eguraldi txarretik eta erori daitezkeen objektuetatik. Sistema autoigokariaren beste abantailatako bat da lanerako plataformak dituela eta horiek enkofratua jartzen laguntzen dutela.



ULMA CONSTRUCTION

- Erabat autoigokaria, eta ez du garabirik behar.
- %100eko babeserako Gardiner Expressway kale jendetsuan zehar.
- Laneko plataformak enkofratua jartzeko.
- Pantailak langileak ari diren mailatik gora iristen dira, langileak muturreko altueretan egon ohi den haizetik eta efektu bisualetatik babestuz.


## ERDI AROKO KOMENTU ZAHAR BAT, ESTILO HANDIKO HOTEL BIHURTUTA DONOSTIAN

Donostiako Catalonia Donosti hotela komentu zahar bat da, orain 4 izar eta 128 logelako hotel moderno moduan egokituta.

Komentu zaharretik, iparraldeko fatxada eta kanpandorra, bi dorreak eta elizaren gorputz nagusiaren traza mantentzen dira. Hoteleko sarrera nagusia, ordea, eraikuntza berrikoa da, eta horrek **estilo handiko kontraste moderno** ematen dio Catalonia Donostiri.

Eraikuntza berriko fatxadetarako **ULMA fatxadako panelak** erabili dira, dituzten **“abantaila funtzional eta konpositiboengatik”**, bi kolore eta testura desberdinetan. M05 koloreko paperezko testura aukeratu da, modernotasuna eta kontraste handia dakarrena fatxada nagusiarekin eta testura ildaskatu horizontalarekin, fatxadaren jatorrizko hareharriaren antzera.

Gainera, Catalonia Donosti hotela itsasotik metro gutxira dagoenez, materialen kalitatea kontuan hartu beharreko alderdi garrantzitsua izan da, epe luzerako arazoak saihesteko eta fatxadaren iraunkortasuna bermatu ahal izateko. Instalaturako profilak finkatzeko sistemak gatzaren kontrako tratamendu espezifikoak du.



ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

## EUSKARALDIA: EKIN HITZ EGINEZ, HITZ EGIN ZURE HITZEKIN

22. Korrikak agerian utzi zuen euskaltzaleek kalera irteteko duten nahia eta **euskararen ezagutza zein erabilera areagotzeko urratsak egiteko** borondate sendoa. Orain, Euskaraldiaren edizio berri baterako bidea ireki da, euskara ulertzen dugun hiztunen artean hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa sozial masibo bat, gizartearen gune guztietara hedatua eta denborari dagokionez mugatua.

Arigune, ahobizi eta belarriprest... oso egunerokoak bihurtu diren hitzak eta kontzeptuak dira, eta berriro errepikatuko dira azaroaren 18tik abenduaren 2ra egingo den Euskaraldiaren hirugarren edizioan.

Aurreko edizioetan bezala, ULMAk eta bere Negozioek parte hartuko dute Euskaraldian. Hainbat arigune sortuko dira, eta ULMA Taldearen (UML) motibazio batzordeak bere ahaleginak egingo ditu ekimena aurrera ateratzeko.



ULMA TALDEA

Irailean irekiko da banakako izena emateko epea, eta, bitartean, **anima zaitetz eta zoaz motorrak berotzen, igaro hitzetatik ekintzetara!**

## ULMA EUROPASTRY-REKIN GOZATZEN DA

Rubin (Bartzelona) kokatuta dagoen Europastry enpresa okindegi masa izoztuetan liderra da, eta proiektu berri bati ekingo dio, bi fasetan, ULMA Handling Systemsekin.

1. fasean, kutxen biltegi automatiko bat instalatuko da, 5 transjasogailuz osatutako 4 korridorerekin, eskaerak prestatzeko sistema automatikoarekin batera. Eta 2. fasean, kutxen biltegia 6 korridoretara zabalduko da.

Gaur egun, Europastryk Mecalux enpresaren paleten biltegi automatiko bat eta eskaerak prestatzeko eskuzko sistema bat ditu -22°C-tan dagoen nabe batean. Proiektuarekin, Eurpastryk **orain eskuz prestatzen diren zenbait eskaera automatikoki egingo ditu, eta horrek baldintzak hobetuko ditu eta eskaerak prestatzeko gaitasuna handituko du.**

ULMA HANDLING SYSTEMS



## NEW YORKEN EGITURA KURBATUA ERAIKITZEKO ENKOFRATU-SOLUZIOAK

ULMA CONSTRUCTION



**New Yorkeko auzorik modernoenetako batean, Estatu Batuetan, egitura kurbatu ikaragarria eraikitzen ari dira, Olympia Dumbo.**

Hill West Architectsek diseinatutako eta Fortis Property Groupek garatutako eraikin berriak altueran hazten jarraitzen du Dumbo auzoan, Brooklynen. Barrutia ezaguna da bere eskaintza artistiko eta kulturalagatik, jatetxeengatik eta Manhattango skylinearen ikuspegi ikusgarriengatik.

Olympia Dumbo 82 m eta 16.500 m<sup>2</sup>-ko altuerarekin 74 apartamentu



eta atiko, instalazio eta zerbitzu komunak, gimnasio bat, sauna bat, igerileku bat eta aparkaleku bat izango ditu. Eraikinak . guztira, 26 solairu izango ditu.

Eraikinaren kurbadura bereziak diseinu berezia behar izan du. Eta ULMAk, proiektuaren eskakizun guztietara egokitzen diren enkofratze-, zirkuitze- eta igoketa-soluzioak eskaini ditu.

**Eraikineko igogailuaren nukleoa egiteko, ULMAren RKS sistema igotzaile gidatua erabili da, 6. solairutik azkenekora.**

## SOFTWARE SALMENTA AEB-N

ESTATU BATUETAKO ENERGIA SEKTOREKO ENPRESA MULTINAZIONAL GARRANTZITSU BATEK BAT EGITEN DU ULMA EMBEDDED SOLUTIONSEN LOTU4TE SOFTWAREAREN BEZEROEN ZERRENDAREKIN.

Bi arrazoi direla eta, nazioarteko salmenta hori mugarri garrantzitsua da kooperatibarentzat. Alde batetik, **software propioaren lehen salmenta da Europako mugetatik kanpo.** Bestalde, softwarearen esparruan, **energia sektorea** gehitzen diegu gure sektore tradizionalei (trena, automozioa, aeroespaziala eta abar). Energia sektorea berrikuntza prozesu batean murgilduta dago, datozen urteetan aurre egin beharreko erroka handiak gainditzeko.

ULMA Embedded Solutionsek lanean jarraitzen du datozen hilabeteetan LOTU4TERen salmentak handitzeko. Produktua hobetzen eta garatzen jarraitzen da, eta, era berean, nazioarteko merkatuko hobi berriak aztertzen dira, salmentak dibertsifikatzeko eta bezero potentzial gehiagorengana iritsi ahal izateko. **LOTU4TE** software berri



ULMA EMBEDDED SOLUTIONS

bat da, **IBM ETM eta NI Teststanden arteko norabide biko konexioa** ematen duena, proben efizientzia hobetzeko, exekuzioa automatizatuta. Gainera, produktuaren

kalitatea hobetzen du, izan ere, produktuaren bizi zikloaren trazabilitate osoa ahalbidetzen du, hasierako baldintzetatik proba automatizatuen emaitzetaraino.

## ULMA CONVEYOR COMPONENTS, KANADAKO CIM AZOKAN

ULMA Conveyor Componentsek erakusle gisa parte hartu du CIM azokan (Canadian Institute of Mining), maiatzaren 1etik 3ra, Vancouver hirian (Kanada). 2020an pandemiak azoka bertan behera utzi eta 2021ean modu birtualean egin ondoren, CIM berriro egin da, indartsu eta aurrez aurre, eta okupazioaren %100era iritsi da.

ULMA 470 enpresa baino gehiagorekin egon da **sektoreko berrikuntzak erakusten.** Azokak arrakasta handia izan du, bezeroen bisita ugariarekin eta bezero berri posibleekin, bai EPC enpresetan,



ULMA CONVEYOR COMPONENTS

bai hornitzaile eta azken erabiltzaileetan, eta, beraz, ULMArentzat etorkizunerako agertzen diren itxaropenak oso interesgarriak dira.

## ULMA TALDEKO MEDICAL TECHNOLOGIES JARDUERAK SEMG-EN XVIII. BILTZARREAN PARTE HARTU ZUEN

ULMA Taldearen Medical Technologies jarduera Medikuntza Orokorraren eta Familia Medikuntzaren XXVIII. Biltzar Nazionalan izan da, ekainaren 7tik 11ra, Bilboko Euskalduna Jauregian, **zenbait espezialitatetan teknologia mediko berriak garatzeko egin dituen aurrerapenen berri emateko.**

Biltzarrean, **Lehen Arretako teknika diagnostiko berriei** lotutako jarduera ugari nabarmendu dira, eta, gailu berriak aurkeztu dira. Ildo horretan, azpimarratu behar da ULMAren standera hurbildu ziren pertsonen kopuru handia, markak berak garatu dituen teknologia eta gailuekiko interesa erakutsiz.



ULMA TALDEA

## ESE ERRE, TOLEDOKO ANAPAT KONBENTZIOAREN 28. EDIZIOAN



ULMA MANUTENTZIO ZERBITZUAK

ESE ERRE ULMA Manutentzio Zerbitzuetako profesionalentzako ordezko piezen negozio unitatea da, eta Toledon izan da, ANAPAT - Laneko Aireko Plataformen

Alokairuen Elkarrekin Nazionalaren Konbentzioaren 28. edizioan. Konbentzioak sektoreko enpresa liderrak bildu ditu, eta horien artean dago ESE ERRE. Bertan, hainbat ponentzia aurkeztu dira

lehen mailako adituekin, parte hartzaileen artean esperientziak eta ezagutzak trukatzeko gainera.

ESE ERREk Zilarrezko babesle gisa parte hartu du, eta workshopen esparruan ere informazio stand bat jarri du, eta hor, bere **erreferentzia sorta zabala** ezagutarazteaz gain, bereziki plataforma jasotzaileen sektorerako, hornitzaile gisa duen lehiakortasuna azpimarratu zuen, **ecommerce zerbitzu indartsua eta denbora errealean aholkularitza profesionala** eskaintzen duen giza talde aditua baititu.

## ONTZIRATZE JASANGARRI ETA EFIZIENTEAREN ESPERIENTZIA HARAGI INDUSTRIAREN ZERBITZURA IFFA-N



ULMA PACKAGING

IFFA Frankfurt izan da, beste behin, haragi industriarako topalekurik garrantzitsuena, eta ontziratze soluzioen eta aplikazioen erakusketa handi bat egin da. 700 m<sup>2</sup>-ko gunean, efizientzia handiko ekipak ikusi ahal izan ziren, industriaren eskakizun zorrotzenak betetzen dituzten higienarako estandarrak dituzten diseinuekin.

Ontziratzearen **jasangarritasunak** funtsezko alderdia izaten jarraitzen du, gure bereizgarri bat izanik, eta IFFAn ere oso presente egon zen.

Horrenbestez, ULMAren stand bisitatu zuen mundu osoko bisitari kopuru handiak ikusi zuen gero eta eficiente eta jasangarriagoak diren eta formatu aldaketa errazak ahalbidetzen dituzten termoformatzaileak, ekoizpen handiko flow pack ontziratze lerro automatikoak, fidagarritasun handiko termoizilatazaileak, VFFS biltzaile bertikala, **automatizatze** soluzio osatuak, produktua kargatetik paletetan kokatzera, eta **ULMA Digitalek** ahalbidetzen dituen zerbitzuak.



## ULMAREN BILTEGI BERRIA ERRESUMA BATUAN



ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

ULMA Architectural Solutionsek biltegi berri bat du Bristoleko Avonmouth herrian, eta, hala, bere presentzia handitu da merkatu britainiarrean. Biltegiari esker, **Erresuma Batuan tokiko hornitzaile** bihurtu ahal izango da, eta bezeroari begirako harremana indartuko du, izan ere, **entregatzeko denborak laburragoak izango dira, 48 ordukoak**, bezeroak itxaron ezin duen proiektuetarako, eta horiek ebaluatze **laginak azkarrago emango** dira.

ULMAk 2012. urtetik du presentzia Erresuma Batuko drainatze soluzioen sektorean. 2017an, filial bat irekitzeak herrialde horretako hazkundera sendotu zuen. Gaur egun, ULMA bere produktuen kalitate handiagatik eta prezio lehiakorrenagatik ezagutzen da, eta 24 orduan artatzeko gai den sail tekniko baten babesa du.



## ULMA TALDEKO BESTE TALENTUAK

# BAKETAREN ERRITMOAN



—  
**EGOITZ OLALDE**  
ULMA HANDLING SYSTEMS

## “BATERIA JOTZEAN, KONTZENTRAZIO SENTSAZIOA SENTITZEN DUT, BESTE INOLAKO JARDUERAREKIN GERTATZEN EZ ZAIDANA”.

—  
**Egoitz Olalde ULMA Handling Systemsen lan egiten du, SGA izeneko ingeniari-taldea (Biltegiak Kudeatzeko Sistema). Bi taldetan jotzen du bateria, 3 lagunez osatutako Sharon Stoner taldean –dagoeneko 4 album argitaratu ditu–, eta 4 lagunez osatutako Keia taldean –albuma estreinatu berri du aurten bertan–.**

Egoitzek 9 edo 10 urte zituenen hasi zen dena. Lehengusu batek VHS bideo bat utzi zion, Guns N' Roses, Scorpions, ACDC, Queen eta antzeko rock taldeen bideoak eta zuzenekoekin. Bideo horietan, lehen aldiz, rock bateria jotzaile baten ikusgarritasuna ikusi zuen. Ikusi zuenak eta soinuak eragin egin zion eta ikaragarri gustatu zitzaion.

*“Bateria jotzea zaila da, oso erraza da soinua ateraraztea, baina maila ertain-altuan jotzeak oso teknika zehatza eskatzen du, lau gorputz adarretako mugimenduak koordinatu behar baitira, eta hori ez da batere erraza”, Egoitzek esan digunez.*

Egoitzek 13 urte zituenetik jotzen du. Oñatiko Musika Eskolan hasi zen, “Pais” esaten zioten Gasteizko irakasle batekin. Harekin 3 urte egin zituen eta, ondoren, eskolak utzi zituen, Oñatiko 5 gaztek sortutako Dama Baltza taldearekin jotzeko. 10 urte baino gehiago autodidakta

gisa jotzen egin ondoren, eskolak hartu zituen berriro, oraingoan Aitor Aranburu izeneko Bergarako bateria jotzaile esperientziadun batekin. Harekin 2007tik ari da eskolak hartzen, eta, gaur egun, eskolak eta taldeak RockSchool-en online ikastaro batekin uztartzen ditu. 8. gradua atera nahi du, kontserbatorioko maila profesionalaren baliokidea dena.

Egoitzek jotzen zuen lehen taldeak lagunaren artean sortu ziren (Dama Baltza eta Sharon). Baina, denborarekin, Sorkun, Lenao eta Keia bezalako taldeek bereganatu zuten elkarrekin jotzeko.

10 urte, Oñatiko herri eskolaren behealdean entseatzeko aritu ziren. Gero, bandarekin astean behin edo bitan jotzen hasi ziren Eltzia lokaletan, eta, horrez gain, Egoitz ia goizero joaten da ordu eta erdi ikastera, lana, familia eta musika bateratu ahal izateko.

Une honetan, jotzen duen musika mota taldearen arabera da. Sharon Stonerren stoner rocka jotzen dute batez ere, baina berezitasun batekin: ahotsak oso melodikoak dira eta stonerraren bereizgarri den soinu astun eta gogorrarekin kontrastea. Keian, aldiz, desberdina da, nahiz eta oinarri erritmikoa bera izan (ULMA Packagingeko Iñigo Ibarrondo,

Sharonen baxu jotzaileak Keian ere jotzen du), Keiaren estiloa 90eko hamarkadako rock-popagoa da, folky ukituren batekin, eta, batez ere, emakume ahotsa izatea nabarmentzen da.

*“Rockaren ia aldaera guztiak jotzea gustatzen zait, metaleroenetik poperaino, baita jazz fusio ukituekin edo erritmo progresiboagoekin ere”, zehazten du.*

Bere lehen esperientzia garrantzitsua 2002 eta 2003 bitartean izan zen, Euskadin eta penintsulan zehar egindako 2 urteko bira, Kashbad banda mitikoko Sorkun abeslariaren laguntzaile moduan.

Gaur egun, musika banden aldetik gehiegizko eskaria dago, eta horrek kontzertuen gaia zailtzen du. Hala ere, Egoitzek aitortu du, nahi beste bidaiatzen ari ez diren arren, Keiarekin kontzertu dezente egiten ari dela.

*“Banda edo musikari askorekin jotzea gustatuko litzaidake, baina bat aipatu behar badut, Frank Zapparekin esango nuke. Niretzat, musikaren historiako musikaririk onenetako eta emankorrenetako bat da”, aitortzen du Olalde.*



—  
**ZORIONE GALDOS**  
ULMA PACKAGING

UKRAINAKO ADINGABEEN HARRERA

## ERRADIAZIOA ETA, ORAIN, GERRA

Zazpi urte igaro dira Zorione Galdosek Anna lehen aldiz hartu zuenetik. Anna Ivankiv-ekoa da, Ukrainakoa. Zorionek, irratian, Txernobyl Elkartearen elkarrizketa bat entzun zuen, eta han Euskadiko familiei udan adingabeak hartzeko deia egin zuten, eta deitzea erabaki zuen.

Zorionerekin egon gara eta bere esperientzia eta urratsak jarraitu nahi izanez gero zer egin beharko genukeen kontatu digu.

—  
**Zein elkarteren bidez egin zenuen harrera eta zein dira egin beharreko urratsak?**

Anna Txernobyl Elkartearen bidez hartu genuen. Aldez aurreko hainbat bilera egin genituen, eta, horietan, harrera programaren, funtzionamenduaren eta abarren helburua azaldu ziguten. Geroago, familiako kide guztiak elkartera joan ginen, gure errutinak, bizimodua, familia egitura (haurren adina) eta abar 'azter' zezaten.

Elkartea urtero joaten da Ukrainara (Txernobyl ingurua), programan parte hartzea erabaki duten haurrak eta familiak ezagutzeko. Hortik aurrera, Txernobyl Elkarteak adingabe bakoitzarentzat harrera familiarik egokiena aurkitzeko lan zaila egiten du.

—  
**Zein datatan etortzen dira Euskadira?**

Udako programa bi hilabetekoa

da: uztaila eta abuztua. Baina Gabonetako programa ere badago.

—  
**Zer adin dute programan parte hartzen duten haurrek eta nola egokitzen dira gure ohituretara, hizkuntzara eta bizitzeko moduetara? Nola erlazionatzen dira etxeko lagunekin?**

6 urtetik aurrera eta, gehienez, 14 urte betetzen dituzten arte has daitezke etortzen.

“

*“Oñatin egoten naizenean askoz hobeto sentitzen naiz. Osasuntzu eta pozik. Oñatira lehenengo bidaiaren ondoren, konturatu nintzen Ivankiv-en, hain kutsatutako herri batean bizitzea ez dela guay.”*

—  
**ANNA**



Annak lehen 4-5 egunak negarrez eman zituen (sei urte baino ez zituen). Baina, hortik aurrera, bere jarrera 'normalizatzen' joan zen eta familiako beste bat bihurtu zen. Primeran egokitu zen gure ohituretara, ingurune sozialera, janarira... Annak beti esaten du Oñatin mundu guztia oso atsegina dela eta oso irribarretsua garel.

—  
**Ba al duzue talde gisa programatutako jarduerarik, edo hemen pasatzen duten denbora harrera familiarekin bakarrik egoten dira?**

Bai, urtero harrera familiek ekintza edo txango bateratuak antolatzen dituzte, eta oso interesgarria da parte hartzea. Elkarteko begiraleek aukera horiek aprobetxatzen dituzte harreraren dauden haurrekin hitz egiteko eta jarraipena egiteko.

—  
**Zer esango zenioke haur bat hartzea pentsatzen ari den eta zalantzak dituen pertsona bati?**

Ez dezatela bi aldiz pentsatu. Hemen, bizi garen ingurunean,

bizi kalitatea askoz ere hobea da datozen tokikoa baino. Hemen ondo jaten dute, naturarekin harremana dute, familia ingurune egonkor batean daude... Horrekin guztiarekin Ukrainara energia positibo handiarekin eta negu gogorra igartzeko defentsak topera dituztela itzultzen dira.

Baina ez da bakarrik positiboa Ukrainako haurrentzat... Energia txutea guretzat ere bada! Horrekin ez dut esan nahi erraza denik, baina ezta zaila ere. Haur horiek familiako beste kide bat gehiago direla sentitu baino ez dute egin behar, arlo guztietan. Umeekin ia beti gertatzen den bezala, ematen dizutena ematen duzuna baino askoz gehiago da.

—  
**ETA ORAIN, GERRA, Txernobyl Errusiaren erasoaldiaren erdian zegoen, egoera hori nola bizi izan duzue etxean?**

Otsailaren 24an dena hasi zenetik, bi astez, Annarekin nolabaiteko normaltasunez harremanetan jarraitu ahal izan genuen. Baina martxoaren 4an, harekiko

komunikazio guztia galdu genuen, eta 35 egun ziurgabetasun eta beldur handiz egon ginen. Ez prentsak, ez hedabideek ez zuten hitz egiten Ukrainako alde horretako egoerari buruz.

—  
**Prentsak uda Euskadin igarotzen duten adingabeak eta senideak ekartzen ari diren autobusei buruzko informazioa eman du. Anna da etorri den pertsonetako bat, edo oraindik Ukrainan jarraitzen du?**

Bai, inguru hartan errusiarren okupazioa amaitu zenean, familia batzuk beren kabuz irteten hasi ziren Ukrainatik. Beti izan zuten hainbat GKEren babesa, eta haiek gidatzen zituzten nondik atera behar zuten Poloniara iristeko. Behin hara iritsita, Euskadira etortzeko autobusak antolatzen ziren.

Bidaia gogor eta luze baten ondoren, Anna eta bere familia autobus horietako batean iritsi ziren Oñatira, apirilaren 15ean.

# ULMAREN BIHOTZA ZAINTZEN

## DISLIPEMIAK TALDEAN

### DISLIPEMIA: ZURE ZIRKULAZIO APARATUAREN ETSAI ISILA

Dislipemia osasun nahasmendu bat da, eta odoleko lipidoen kontzentrazio plasmatikoen igoera (kolesterola, triglizeridoak edo biak) edo HDL lipoproteinaren jaitsiera islatzen du.

Dislipemia garrantzitsua da, zirkulazio aparatuko gaixotasunen ondoriozko heriotzen funtsezko arrazoi bat delako, gaixotasun horiek direlarik, era berean, gure gizartearen heriotzen arrazoi nagusietako bat.

# KOLESTEROLA

INORK NAHI EZ DUEN BAINA GUZTIOK BEHAR DUGUN  
(BERE NEURRIAN) GONBIDATUA

**Zer da kolesterola?** Giza gorputzeko zelula guztietan dagoen substantzia koipetsu naturala da, eta guztiz beharrezkoa da organismoaren ohiko funtzionamendurako; besteak beste, digestio sistemaren funtzionamenduan eta D bitaminaren eta hainbat hormonaren sintesian inplikaturik dago. Bi dira bere iturri nagusiak: gibelako barne produkzioa eta gure dietako elikagaiak.

Odolean zehar bidaiatzeko, gantza lipoproteinei lotzen zaie, eta horien artean bi nabarmentzen dira: **HDL, "ona" ere esaten zaio, erabili gabeko kolesterola bildu eta gibelera itzultzen duena; eta LDL, "txarra" ere esaten zaio, kolesterola gibeletik organismoaren gainerako tokietara garraiatzen duena.** LDL gehiegi badago, zirkulazio bideetan gantz hondarrak geratzen

dira. Horrek zirkulazio arazoak eragin ditzake, hala nola bihotzekoak edo iktus krisiak

Triglizeridoak, berriz, gantz mota bat dira, organismoan ohikoena, eta elikagaietatik datoz. Gorputzak biltegitratzen ditu kaloria gehiegi hartzen direnean, eta askatu egiten ditu janarien artean energia behar duenean.

LDL GEHIEGI BADAGO,  
ZIRKULAZIO BIDEETAN GANTZ  
HONDARRAK GERATZEN DIRA.  
HORREK ZIRKULAZIO ARAZOAK  
ERAGIN DITZAKE, HALA NOLA  
BIHOTZKOAK EDO IKTUS KRISIAK

### ARRISKUA KALKULATZEA

(Baliok mg/dl-tan)


	BAXUA	ERTAINA	ALTUA
KOLESTEROLA GUZTIRA	<200	200-240	>240
HDL-KOL <small>EMAKUMEAK GIZONAK</small>	>65 >55	45-65 35-55	<45 <35
LDL-KOL	<100	100-160	>160
TRIGLIZERIDOAK	<150	150-200	>200

ULMA TALDEKO DATUAK


# ERLAXATZEA EZ DA AUKERA BAT

Duela urte askotatik ohikoa den bezala, 2022ko lehen seihilekoan odol eta gernu analisiak egin dira ULMAko kideen artean. Azterketak ULMA Taldeko 2.000 pertsona ingururen datuen analisiaren emaitzak islatzen ditu.

ULMAKO PERTSONEN PROFIL LIPIDIKOA



KOLESTEROL KONTZENTRAZIOA NEGOZIOETAN



Zein dira desberdintasun horretan eragin dezaketen faktoreak?

**BATEZ BESTEKO ADINA:**

Kolesterol totalaren zifrak handitu egiten dira adinean aurrera egin ahala.



**BIZI OHITURAK:**

Sedentarisismoak eragin zuzena du dislipemia kasuen gorakadan.



**DIETA:**

Elikagai koipetsuetan eta ultraprozesatuetan oinarritutako dieta desorekatuak oso igoera nabarmena eragiten du dislipemien agerpenean.



**HERENTZIAZKO FAMILIA PATROIAK:**

Biztanleriaren zati handi batek du familiako hiperkolesterolemia.



**ESTRESA:**

Ikerketa batzuek diotenez, estresa da kortisol hormonaren igoeraren arrazoia, eta horrek, halaber, gantza pilatzeko eta obesitaterako joera sortzen du.



## Eta orain... zer egingo dut nik?

### DISLIPEMIEN FAKTORE PREBENTIBOAK ETA ZUZENTZAILEAK

Odol analisi batean pertsona bakoitzak lortutako zifrak aztertu, interpretatu eta behar bezala bideratu behar dira, elementu horien kontzentrazioek ez dezaten arriskurik izan ez epe laburrean ez epe ertainean.

**JARRAITU BEHARREKO JARRAIBIDE OROKORRAK:**



Zure analisiaren zifrak arrisku handikotzat jotzen direnen artean badaude, joan Mediku Zerbitzura edo zure Familia Medikarengana, tratamendu mediko bat jartzeko aukera aztertzeko.



Lortutako zifrak gorabehera, ez ahaztu dislipemiak denbora tarte labur batean ager daitezkeela. Ildo horretan, ohitura hauek aplikatzea komeni da, bizitza osasuntsu baterako:



**Egin ariketa:** kirola da gure aliatu nagusia organismo orekatu bat mantentzeko, bai intentsitate txikikoa (astean lau edo bost egunetan ordu erdiko paseoak), bai intentsitate handikoa (astean hiru egunetan hoge minutuko saioak).



**Zaindu dieta:** gantz saturatuen eta trans gantzen kontsumoak (haragi gorriak, esneki osoak, produktu ultraprozesatuak...) zuzenean handitzen du dislipemia izateko arriskua; bestalde, zuntz disolbagarria edo omega-3 gantz azidoak dituzten produktuen kontsumoa handitzeak mesede egiten dio zure osasun kardiobaskularrari.



**Ezabatu** zure bizitzatik beste **toxiko batzuk, hala nola alkohola edo tabakoa:** azterketa ugari frogatzen dute ohitura horien harreman zuzena eta oso negatiboa, istripu kardiobaskular baten arrisku maila biderkatzen baitute.



Parte hartu ULMA Taldeak eskaintzen dizkizun **urteko analitketan:** zure odolaren eta gernuaren kontrol kuantitatibo eta kualitatibo erregular bat da, egungo zein etorkizuneko osasun ona mantentzeko lan egin ahal izateko oinarria.

# 2022

maiatzak 1 - abuztuak 31

## ERRETIROAK

FLORIAN CORRALES

LUIS MARIA UGARTE

JOSE MARI RUIZ

IÑAKI GOITIA

JAIONE LAZKANOITURBURU

JUAN CARLOS BARRENA

ANTONIO ROMERO

JESUS MARINO KARETXE

ROBERTO MENDI

eskerrik asko eta gozatu!

Zorionak

begira   
20 URTE

20

ALDIZKARIAREN **URTE** BETE DITUGU

Eta **20 €-ko 20 TXARTEL**

zozketatzen ditugu



Begira aldizkariaren 20 urte bete ditugu eta, hori ospatzeko, 20 euroko 20 deskontu txartel zozketatuko ditugu Forum sporten egindako erosketetarako.

Pertsona bakoitzak deskontu txartel bakarria irabazi ahal izango du.

ULMAko langileek eta erretiratuek bakarrik parte hartu ahal izango dute.

Txartelak Forum sporteko edozein denda fisikotan trukatu ahal izango dira (ez du balio online erosketetan).

Zozketa: uztailaren 21ean.



PARTE HARTU